



---

## FORU DEKRETUA

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saila  
Zerga Araudiaren Zerbitzua  
Esp. zk.: 54/2018

### **Europako funts batzuen zerga tratamenduaren alderdi batzuk eta berrikuntza bultzatzeko, jarduera ekonomikoa finantzatzea sustatzeko eta ekoizpen kapitalizazioa bultzatzeko zerga neurriak garatzea.**

Martxoaren 7ko 2/2018 Foru Arauak, Arabako zerga sistemako hainbat arau eta zerga aldatzen dituenak, Europako epe luzerako inbertsio funts batzuen tributazioa arautzen du, batetik, eta, bestetik, aldaketak sartzen ditu zenbait zergaren foru arauetan (pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga, ondarearen gaineko zerga, sozietateen gaineko zerga, ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga), kooperatiben zerga araubidean eta Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean. Bada, foru arau horrek III. tituluan berrikuntza sustatzeko, jarduera ekonomikoa finantzatzeko eta ekoizpen kapitalizaziorako Europako funts batzuen tributazioa arautzen du eta, gainera, neurriak ezartzen ditu sektore pribatuak parte har dezan funts horien bidez Europa 2020 estrategiaren esparruan lortu nahi diren helburuak lortzeko ahaleginetan.

Estrategia horrek ezartzen du Europa 2020ren gunean hiru lehentasun izan behar direla, elkar indartzen dutenak eta Europako merkatuko ekonomia sozialak XXI. mendean edukiko duen irudia taxutzen dutenak. Hauexek dira lehentasunak:

- Hazkunde adimentsua: ezagutzan eta berrikuntzan oinarritutako ekonomia garatzea, eta horrek esan nahi du ezagutza eta berrikuntza gure etorkizuneko hazkundearen bultzatzaile gisa finkatu behar direla. Baina arrakasta izateko, horrekin batera ekintzaile-jarrera behar da, finantzaketa lortu behar da eta arreta berezia jarri behar zaie erabiltzaileen beharizanei eta merkatuaren aukerei.
- Hazkunde jasangarria: sustatu behar den ekonomiak eraginkortasun handiagoz baliatu behar ditu baliabideak, berdeagoa eta lehiakorragoa izan behar du, Europak prozesu eta teknologia berriak garatzeko lehian duen lidergoa baliatu behar du, sare adimentsuen garapena bizkortu behar du Europar Batasunean eta enpresen eta ETEen lehiarako abantailak indartu behar ditu, lagungarri izan behar du ekonomiaren, gizartearen eta lurraldearen kohesiorako, eta, gainera, baliabideen erabilera eraginkorrari balio ematen lagundu behar die kontsumitzaileei.
- Hazkunde integratzailea: enplegu maila handia duen ekonomia sustatu behar da, kualifikazioetan inbertituz, txirotasunaren aurka borrokatuz eta lan merkatuak zein prestakuntzako eta gizarte babeseko sistemak modernizatuz, aldaketari aurre hartzen eta hura kudeatzen laguntzeko pertsoneri, gizarte kohesionatua eraikitzen laguntzeko, non aukeretarako sarbidea eta aukera berak edukitzea bermatuko diren, eta hala ekonomiaren, gizartearen eta lurraldearen kohesioa indartuko d .



Aldi berean, Arabako Foru Aldundiaren lehentasunetako bat da jarduera ekonomikoaren garapena bermatzea eta lortzea aberastasuna eta enplegua sortzea eta lurraldea modu adimentsuan, inklusiboak eta jasangarrian garatzea. Beraz, bere egiten ditu Europa 2020 estrategiaren helburu nagusiak.

Argi dago bi estrategiek helburu berak dituztela eta bien printzipio gidariak berak direla. Hortaz, foru arau horrek I. tituluan arautzen duenaren bidez emaitzarik onena lor daiteke, uztartu egiten baititu Europako Parlamentuak eta Kontseiluak ezarritako finantza tresnak, batetik, eta, bestetik, Arabako Foru Aldundiak jarduera ekonomikoaren finantzaketaren garapenarekin, enpresa ehunaren ekoizpen kapitalizazioarekin eta ikerketa eta garapeneko zein berrikuntza teknologikoko jarduerak indartzearekin duen konpromisoa.

Argi dago aipatu ditugun Europako finantza tresnak eta Arabako Foru Aldundiaren politika ekonomikoa sortzeak eta abiarazteak berekin dakartela errealitate berrira ondo egokitutako zerga tratamendua ezarri beharra, eta horretarako Ekonomia Itunaren arabera lurralde historikoez arautzeko autonomia duten zerga figurak eguneratu behar direla.

Aldi berean, beste lehentasun bat ere agertzen zaigu: herritarrek parte hartzea helburu horien finantzaketan; izan ere, gizarteak bere aurrezkoa mobilizatu behar du denon helburu kolektibo nagusiak lortu ahal izateko, horrek ongizate handiagoa baitakar. Herritarrek berrikuntza teknologikoko eta enpresa kapitalizazioko proiektuen finantzaketan parte hartzea sustatzeko, berrikuntza bultzatzeko Europako funtsei eta jarduera ekonomikoaren finantzaketa eta ekoizpen kapitalizazioa bultzatzeko Europako funtsei lotutako jarduera ekonomikoa garatzeko, aipatutako foru arauak zenbait zerga pizgarri ezartzen ditu zergadunen zuzeneko zergei eragiten dieten zerga nagusietan.

Foru arau horrek 10., 11. eta 12. artikuluetan Europako epe luzerako inbertsio funts batzuk arautzen ditu tributazio ondorioetarako, artikulua horietan eta 2013ko abenduaren 5eko 37/2013 Foru Arauak, sozietateen gaineko zergarenak, 80. artikuluan ezartzen dituen helburuei erantzun eta artikulua horietan ezartzen diren baldintzak betetzen dituztenak, hain zuzen ere. Beste alde batetik, foru arau horretako 13. artikuluan hauxe xedatzen da: “Arestiko 10., 11. eta 12. artikuluetan ezarritako baldintzak betetzen dituzten eta titulu honetako IV. kapituluaren aurreikusitako zerga neurriak aplikatu nahi dituzten Europako funtsek jakinarazpena aurkeztu beharko diote Zerga Administrazioari, merkaturatu baino lehenago edo, bestela, zerga neurri horiek aplikatu nahi dituzten lehen zergaldia hasi aurreko hiru hiletan, erregelamenduz ezartzen den moduan”.

Gainera, artikulua berean honako hau ere ezartzen da: “Zerga Administrazioak, titulu honetako aurreko hiru artikuluetan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatu eta gero, kasuan kasuko funtsa berrikuntza bultzatzeko Europako funtsa, jarduera ekonomikoaren finantzaketa bultzatzeko Europako funtsa edo ekoizpen kapitalizazioa bultzatzeko Europako funtsa dela onartuko du, Ogasuneko zuzendariaren ebazpen bidez. Ebazpen hori argitaratu egingo da guztiek ezagut dezaten”.

Azkenik, honako hau ere xedatzen da artikulua horretan: “Aurreko idatz zatian aipatzen diren Europako funtsek foru arau honen 10., 11. eta 12. artikuluetan ezarritako baldintzak betetzeari buruz Zerga Administrazioari aldian-aldian informazioa emateko betebeharra bete beharko dute, erregelamenduz ezartzen diren baldintza eta epeetan”.

Foru arau horretako 14 - 16 bitarteko artikuluetan pertsona fisikoen gaineko zerga, ondarearen gaineko zerga eta oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga arautzen dituzten foru arauak aldatzen dira berrikuntzaren eta enpresa jardueren finantzaketaren arloetan lankidetzan aritzea bultzatzeko zerga pizgarriak eransteko. Horren ildotik, foru arau horretako 17. artikuluan hauxe xedatzen da: “Kapitulu



honetan jasotako zerga neurriak aplikatu ahal izateko, zergadunek haiek justifikatzen dituzten agiriak aurkeztu beharko dituzte. Foru arau honen 10., 11. eta 12. artikuluek aipatzen dituzten funtsetako partaidetzei eta berrikuntza bultzatzeko Europako funtsetako partaidetzak eskuratzeko banku entitateetan egindako gordailuei buruzko informazio betebeharren edukia erregelamenduz garatuko da, eta hura betetzeko eskatu ahalko da, kasua bada, zergadunei foru arau honetan jasotako zerga neurriak aplikatzeko eskubidea ematen dieten gordailuak zein finantza entitateetan egiten diren, entitate haixen bitartez”.

Horrenbestez, berrikuntza bultzatzeko Europako funtsen, jarduera ekonomikoaren finantzaketa bultzatzeko Europako funtsen eta ekoizpen kapitalizazioa bultzatzeko Europako funtsen izaera aitortzeko prozedura eta baldintzak arautzeko manu horietan ezarritako erregelamenduzko gaikuntzak erabili behar ditu Arabako Foru Aldundiak, eta goian aipatutako informazio betebeharrak xedatu behar ditu.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak eta Aholku Batzordeak horri buruz emandako txostenak ikusi dira.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Foru Gobernuaren Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

## **XEDATZEN DUT:**

### **1. artikulua. Berrikuntza bultzatzeko Europako funtsen, jarduera ekonomikoaren finantzaketa bultzatzeko Europako funtsen eta kapitalizazio produktiboa bultzatzeko Europako funtsen izaera aitortzeko prozedura.**

1. Martxoaren 7ko 2/2018 Foru Arauak 13. artikuluko 1. idatz zatian xedatzen duenarekin bat etorritik, foru arau horretako 10., 11. eta 12. artikuluetan ezartzen diren baldintzak betetzen dituzten Europako funtsek III. tituluko IV. kapituluan xedatzen diren zerga neurriak aplikatu nahi badituzte, horren berri ematen duen komunikazioa aurkeztu behar diote zerga administrazioari Sozietateen gaineko zergaren Arautegiko 45. artikuluan ezartzen den prozeduraren arabera (araudi hori abuztuaren 1eko 41/2014 Foru Dekretuaren bidez onartu zen), artikulua honetan ezartzen diren zehaztasunekin.

2. Komunikazioan honako datu hauek adierazi behar dira:

a) Komunikazioa aurkezten duen epe luzerako inbertsio funtsaren identifikazioa.

b) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015eko apirilaren 29ko 2015/760 (EB) Erregelamenduak, Europako epe luzerako inbertsio funtsei buruzkoak, 5. artikuluko 1. idatz zatian xedatzen duenarekin bat etorritik Europako epe luzerako inbertsio funtsen agintari eskudunari aurkeztutako dokumentazioa.

c) Agintari eskudunak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015eko apirilaren 29ko 2015/760 (EB) Erregelamenduak, Europako epe luzerako inbertsio funtsei buruzkoak, 6. artikuluan aipatzen duen baimena ematea.

d) Europako epe luzerako inbertsio funtsen kudeatzailearen erantzukizunpeko adierazpena, sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak 80. artikuluan agintzen dituen betekizunak betetzen direla ziurtatzen duena.



e) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015eko apirilaren 29ko 2015/760 (EB) Erregelamenduak, Europako epe luzerako inbertsio funtsei buruzkoak, 23. artikuluan aipatzen duen liburuxka (behar denean, funtsezko datuen dokumentua ere bai), eta martxoaren 7ko 2/2018 Foru Arauak 10., 11. edo 12. artikuluetan ezartzen dituen baldintzak betetzen direla frogatzen duen dokumentazioa.

3. Komunikazioa Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko Ogasun Zuzendaritzari aurkeztu behar zaio.

4. Arabako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da berrikuntza bultzatzeko Europako funtsaren edo jarduera ekonomikoaren finantzaketa bultzatzeko Europako funtsaren edo ekoizpen kapitalizazioa bultzatzeko Europako funtsaren izaeraren aitorpena, 2018ko martxoaren 7ko 2/2018 Foru Arauak 7. artikuluan ezartzen duenaren arabera egina.

Gainera, berrikuntza bultzatzeko Europako funtsaren edo jarduera ekonomikoaren finantzaketa bultzatzeko Europako funtsaren edo ekoizpen kapitalizazioa bultzatzeko Europako funtsaren izaera aitortzen zaien Europako epe luzerako inbertsio funtsen zerrenda eguneratua mantenduko du Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak Arabako Foru Aldundiaren webgunean.

## **2. artikulua. Berrikuntza bultzatzeko Europako funtsen, jarduera ekonomikoaren finantzaketa bultzatzeko Europako funtsen eta ekoizpen kapitalizazioa bultzatzeko Europako funtsen informazio betebeharrak.**

1. Martxoaren 7ko 2/2018 Foru Arauko 10., 11. eta 12. artikuluetan aipatzen diren funtsek abenduaren 23ko 111/2008 Foru Dekretuak, finantza kontu, eragiketa eta aktiboen berri eman beharra arautzen duenak, 4.2 artikuluan eta 7. artikuluan ezartzen dituen informazio betebeharrak edukiko dituzte.

2. Aurreko zenbakian xedatzen denaren arabera eman beharreko informazioaz gainera, berrikuntza bultzatzeko Europako funtsaren edo jarduera ekonomikoaren finantzaketa bultzatzeko Europako funtsaren edo ekoizpen kapitalizazioa bultzatzeko Europako funtsaren izaera aitortzen zaien funtsek 2018ko martxoaren 7ko 2/2018 Foru Arauko 10., 11. edo 12. artikuluetan ezartzen diren betekizunen inguruko informazioa, kasuan kasukoa, eman beharko dute ekitaldi bakoitzean (Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak ezarriko du nola) eta, horrez gainera, zerga ondorioetarako funts bakoitza aitortzen duen Ogasun zuzendariaren ebazpena aipatu behar dute.

## **3. artikulua. Berrikuntza bultzatzeko Europako funtsen, jarduera ekonomikoaren finantzaketa bultzatzeko Europako funtsen eta ekoizpen kapitalizazioa bultzatzeko Europako funtsen partaideen informazio betebeharrak.**

1. Martxoaren 11ko 9/2013 Foru Arauak, ondarearen gaineko zergarenak, 5. artikuluko hamahirugarren eta hamalagarren idatz zatietan arautzen dituen salbuespenetako bati heldu nahi dioten zergadunek salbuespena aplikatzeko ezartzen diren baldintzak betetzen dituela frogatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko dute zergaren autolikidazioarekin batera.

2. Maiatzaren 16ko 11/2005 Foru Arauak, oinordetza eta dohaintzen gaineko zergarenak, 9. artikuluko c) letran arautzen duen salbuespenari heldu nahi dioten zergadunek salbuespena aplikatzeko ezartzen diren baldintzak betetzen dituela frogatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko dute zergaren autolikidazioarekin batera.



#### **4. artikulua. Aldatzea abenduaren 23ko 111/2008 Foru Dekretua, finantza kontu, eragiketa eta aktiboen berri eman beharra arautzen duena.**

Honako aldaketa hauek egiten dira abenduaren 23ko 111/2008 Foru Dekretuan (horren bidez finantza kontu, eragiketa eta aktiboen berri eman beharra arautzen da):

Bat. 4. artikuluko 2. idatz zatia aldatzen da eta honela geratzen da:

“2. Inbertsio kolektiboko entitateen sozietate kudeatzaileek, Europako arrisku kapitaleko funtsen, Europako gizarte ekintzaitzako funtsen edo Europako epe luzerako inbertsio funtsen entitate kudeatzaileek, Espainiako entitate merkaturatzaileek eta zerbitzuak libre emateko araubidean diharduten entitate kudeatzaileen ordezkariak honako datu hauek eman behar dizkiote Zerga Administrazioari, urteko aitorpena aurkeztuta: abenduaren 31n inbertsio kolektiboko entitateen kapitaleko edo ondare funtseko akzio edo partaidetzen edo Europako arrisku kapitaleko funtsen, Europako gizarte ekintzaitzako funtsen edo Europako epe luzerako inbertsio funtsen titular izan diren pertsona eta entitateen izen-abizenak edo sozietate izenak edo izen osoak eta identifikazio fiskaleko zenbakiak. Horiez gainera titular bakoitzaren akzioen eta partaidetzen kopurua eta motak zehaztu behar dira eta, behar izanez gero, zein taldetakoak diren ere bai, eta abenduaren 31n izan duten likidazio balioa adierazi behar da. Espainiako inbertsio kolektiboko entitateen akzioen edo partaidetzak mugaz gaindi merkaturatzen badira edo Europako arrisku kapitaleko funtsak, Europako gizarte ekintzaitzako funtsak edo Europako epe luzerako inbertsio funtsak merkaturatzen badira, ez-egoiliar diren beste batzuen kontura akzio edo partaidetzen titular ageri den atzerriko entitate merkaturatzaileak eman behar du informazioa, urtarrilaren 12ko 3/2016 Foru Dekretuak, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren arautegia onartzen duenak, lehenengo xedapen gehigarrian ezartzen duenarekin bat etorritik. Hala ere, sozietate kudeatzaileak edo inbertsio sozietateak erantzukizuna eduki dezake Zerga Administrazioarekin lehenengo xedapen gehigarri horretan xedatzen denaren arabera.

Inbertsio kolektiboko entitateen akzioak edo partaidetzak bigarren mailako merkatu batean edo baloreak negoziatzeko sistema antolatu batean negoziatzeko onartuta badaude, akzioak edo partaidetzak gordailatuta dituen entitateari dagokio aurreko paragrafoan aipatutako informazio betebeharra.”

Bi. 7. artikuluko 1. idatz zatiko a) letrako testua aldatzen da eta honela geratzen da:

“a) Fede-emaile publikoek, inbertsio kolektiboko entitateen sozietate kudeatzaileek, Europako arrisku kapitaleko funtsen, Europako gizarte ekintzaitzako funtsen edo Europako epe luzerako inbertsio funtsen entitate kudeatzaileek, inbertsio funtsetako partaidetzak merkaturatzen dituzten entitateek, krediturako finantza entitate eta establezimenduek, baloreen sozietate eta agentziek, gainerako finantza bitartekariak edo pertsona fisiko eta juridiko guztiek, pertsona fisikoen gaineko zergari, sozietateen gaineko zergari eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zergari buruzko foru arauetan eta arlo honetako xedapenak ezartzen dituzten gainerako arau guztietan ezartzen denarekin bat etorritik.

#### **5. artikulua. Aldatzea abuztuaren 1eko 40/2014 Foru Dekretua, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren arautegia onartzen duena.**

Abuztuaren 1eko 40/2014 Foru Dekretuak, sozietatearen gaineko zergaren arautegia onartzen duenak, 123. artikuluko 4. idatz zatian ezartzen duena aldatzen da eta honela geratzen da:



“2. Kreditu entitateek honako hauek aurkeztu beharko dituzte hurrengo urteko urtarrileko egutegiko lehen hogeita hamar egunetan:

a) Etxebizitza kontuei buruzko informazio adierazpena, datu hauek biltzen dituen:

a') Etxebizitza kontuaren titularren izen-abizenak eta identifikazio fiskaleko zenbakia.

b') Zergadun bakoitzak etxebizitza kontuan duen titulartasun ehunekoa.

c') Etxebizitza kontua ireki zen eguna.

d') Etxebizitza kontuan ekitaldi hasieran egon den saldoa eta amaieran egon dena.

e') Berariaz onartzen den inprimakian eskatzen diren gainerako datu guztiak.

b) Berrikuntza bultzatzeko Europako funtsak eskuratzeko gordailuei buruzko informazio adierazpena, datu hauek biltzen dituen:

a') Gordailuaren titularren izen-abizenak eta identifikazio fiskaleko zenbakia.

b') Zergadun bakoitzak gordailuan duen titulartasun ehunekoa.

c') Gordailua ireki zen eguna.

d') Abenduaren 27ko 33/2013 Foru Arauak, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergarenak, 90.bis artikuluko 3. idatz zatian ezartzen duen mantentze epealdia amaitu aurretik zergadunek hartutako zenbatekoak.

e') Berariaz onartzen den inprimakian eskatzen diren gainerako datu guztiak.

Kreditu entitateek, b) letran xedatzen denarekin bat eman behar duten informazioaz gainera, zerrenda bat aurkeztu behar dute honako datu hauekin: batetik, berrikuntza bultzatzeko Europako funtsetako partaidetzak, kreditu entitateak eskuratu eta kreditu entitateak gordailututako kopuruen helburu izan direnak; bestetik, goiko d') letran adierazitako mantentze epealdia amaitu aurretik eskualdatu edo itzuli diren funtsetako partaidetzak. Kasu bietan, funtsei berrikuntza bultzatzeko Europako funtsaren izaera aitortzeko Ogasun zuzendariak emandako ebazpenak aipatu behar dira.”

## **AZKEN XEDAPENAK**

### **Lehenengoa. Arauak emateko gaikuntza**

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuari ahalmena ematen zaio foru dekretu hau aplikatzeko eta garatzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

### **Bigarrena. Indarrean jartzea**



Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz.

**Ramiro González Vicente**

Diputatu nagusia  
Diputado General

**José Luis Cimiano Ruiz**

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu  
Saileko foru diputatua  
Diputado Foral de Hacienda, Finanzas y  
Presupuestos

**Teresa Viguri Martínez**

Ogasun zuzendaria  
Directora de Hacienda